

## **HAREAZKO ERLOJUA**

Naroa Muñoz Olaizola

*Azpeitia*

Hareazko erlojuan  
Noraezean, galduta,  
Amaigabea den kristalezko munduan preso.  
Zeru urdin ilunari  
gaua nagusitu zaio  
Kamera geldoan, astiro  
Segundoko hondar ale bat  
Hondar aleko segundoko abiadan  
Tak tak, tak tak...  
Egunak luze,  
Orduak luze,  
Tak, tak...  
Libre izateko bidea ere  
luzea,  
baina mundu hau  
nirea da  
Hondar fina behatzen artetik,  
Eta noiz iraungi dira  
lehengo amets zoro eta faltsuak?  
Kristal bat da errealitatetik  
banatzen nauena,

Bizitzaren hondarrean,  
indarra ihesi.  
Argi izpi bat lainoen artetik,  
Oasi bat!  
Zoritxarrez ordea ez dut hilezkortasunean sinesten.